

MEZA-LIBURU TXIKIA



B | 61 18526

Euskal Biblioteka Labayru



1016344  
RELIGIÓN / N. 92

## MEZA-LIBURU TXIKIA

Eskerrik asko,  
aita Lino  
mikel'ek

# MEZA-LIBURU TXIKIA

Zarate'tar Mikel'ek antolatua

(Gipuzkeraz eta erderaz)

NIHIL OBSTAT

Lic. Jesús Garay Isasi

Censor Ecco.

IMPRIMATUR

Bilbao, 16 de febrero de 1968

PABLO, Obispo de Bilbao

Impreso en España

Printed in Spain

© EDITORIAL CANTABRICA, S. A.  
Hecho el depósito que marca la ley

Artes Gráficas Grijelmo, S. A. Uribarre, 4. Bilbao-7 (España)  
N.º de registro: 1.882-68 Depósito legal: BI. 759-XI

Euskalerriko euskaldunentzat  
egin naute ni euskaldun;  
Euskalerriko fededunentzat  
egin naute ni fededun.  
Zugana nator izan zaitezen  
«Meza-liburu txiki»dun,  
euskal-mezetan, bear bezela,  
zuk parte artu dezazun.

## Meza Santua

### SARRERA

*«Bai on eta bai eder dala, anaiak baturik bizi  
ditezela!» (132'gn. salmoa.)*

*Meza Santua batzar bat da; anai arteko  
batzar bat.*

*Eta zertako da anai-billera au? Jaungoikoaren  
Itza entzuteko eta Eukaristia egiteko ta  
artzeko; eta, olaxe, gure kristau bizitza be-  
rriztatzeko ta indartzeko.*

*Ekar dezagun, bada, gure bizitza Mezara;  
gero, gure Meza bizitzara eramanez, ordu  
guzietan, egunoro, bizitza osoan kristau ja-  
torrak izan gaitezen.*

# ERRIAREN BILLERA

«Zakigu lagun gure osasun-Jainko Zure izen ederragaikit,  
jaregin gaitzazu ta barka gure obenak, Zure izenagaitik.» (78'gn. salmoa.)

## ASIERAKO OTOITZAK

(Belauniko)

**G. Aitaren eta Semearen  
eta Espiritu Santuaren izenean.  
Amen.**

A. Igo nadin Jaungoikoaren aldarera.

**E. Nire poza dan Jaunkoikoagana.**

A. Jaunaren izena gure laguntza.

**E. Berak egin zituan zeru-lurrak.**

A. Nik, pekatari onek...



**E. Jaungoiko guzialdunak dezala zu-  
retzat erruki eta zure pekatuak  
barkatuta eraman zaitzala betiko  
bitzitara.**

A. Amen.

---

G. = Guziak.  
A. = Apaizak.  
E. = Erriak.

E. Nik, pekatari onek,  
aitortzen diot  
alguztidun Jaungoikoari,  
Andre Maria beti-Birjiñari,  
zoriondun Mikel Goiaingeruari,  
zoriondun Juan Bautistari,  
Pedro ta Paulo  
apostolu Doneai,  
beste Done guztiai,  
eta zuri, ene Aita,  
pekatutik asko egin dedala  
gogapen, itz eta egiteetan,  
nere erruz, nere erruz,  
nere erru aundiz.

Orregatik eskatzen diot  
Andre Maria beti-Birjiñari,  
zoriondun Mikel Goiaingeruari,  
zoriondun Juan Bautistari,  
Pedro ta Pablo  
Apostolu Doneai,  
beste Done guztiai,  
eta zuri, ene Aita,  
otoitz egiozutela nere alde  
Jaungoiko gure Jaunari.



«Nere erruz, nere erruz, nere erru aundiz...»

- A. Jaungoiko guzialdunak dezala zuentzat erruki eta zuen pekatua barkatuta eraman zaitzatela betiko bizitzara.

E. Amen.

- A. Jaun guzialdun eta errukitsuak eman  
dezaigula gure pekatuen barkamena.
- E. Amen.**
- A. Begira iguzu, Jauna, eta biziko gera.
- E. Eta zure erria Zugan poztuko da.**
- A. Agertu iguzu, Jauna, zure errukia.
- E. Eta iguzu osasun.**
- A. Entzun, Jauna, gure otoitzia.
- E. Eta iritxi bedi Zugana gure deia.**
- A. Jauna zuekin.
- E. Eta zure espirituarekin.**

(Zutik)

- A. Erruki, Jauna.
- E. Erruki, Jauna.**
- A. Erruki, Jauna.
- E. Kristo, erruki.**
- A. Kristo, erruki.
- E. Kristo, erruki.**
- A. Erruki, Jauna.
- E. Erruki, Jauna.**
- A. Erruki, Jauna.

**G. Aintza zeruetan Jaungoikoari,**  
**eta pakea lurrean Aren gogoko**  
**gizonai.**  
**Ain audi ta eder zaitugulako**  
**gora Zu,**  
**onetsia Zu,**  
**agur Zuri,**  
**aintza Zuri,**  
**eta eskerrak Zuri.**  
**Goiko Jaun, zeruko Errege,**  
**Aita Jaungoiko alguztiduna.**  
**Jesukristo, Jaun Seme bakar,**  
**Goiko Jaun, Jaungoikoaren**  
**Bildots,**  
**Aitaren Seme :**  
**munduko pekatua kentzen**  
**dezun orrek,**  
**izan guretzat erruki;**  
**munduko pekatua kentzen**  
**dezun orrek,**  
**entzun gure deia;**  
**Aitaren eskualdean eseririk**  
**zauden orrek,**  
**izan guretzat erruki.**  
**Zu bakarrik bait-zera Santu,**  
**Zu bakarrik Jaun,**  
**Zu bakarrik Jaun Goiko,**  
**Jesukristo,**  
**Espiritu Santuarekin**  
**Aita Jaungoikoaren argitan.**  
**Amen.**

*«Jauna zuekin.» «Egigun otoitz.»  
Orra or, Meza emailleak batzar-lagunoi  
egiten digun agurra ta deia, Eliza oso-  
arekin bat eginda otoi egiteko.*

*Egin dezagun, bada, otoitz, Jauna gure-  
kin dago-ta. «Zuetako bik alkar artuko  
bazenute edozer eskatzeko, eman egin-  
go lizueke nere zeruko Aitak. Izan ere  
iñun bi-iru nere izenean biltzen badira,  
antxe naute Ni ere euren artean.» (Mt  
18, 19-20.)*

*Egin dezagun otoitz Kristoren ordezko  
dan apaizarekin batean; gure-gurea egin  
dezagun apaizaren otoitza azkenean  
«Amen» erantzunaz.*

A. Jauna zuekin.

**E. Eta zure espirituarekin.**

A. Egigun otoitz (egunekoa)...

**E. Amen.**

(Eseri)



## JAU NGOIKO-ITZAREN LITURJIA

«Jauna, Zuk betiko bizitzako itzak dituzu eta  
guk siñistu egiten dizugu.» (Jn 6, 68-69.)

*Orain, Jaungoikoaren Itza entzutera  
goaz, Jaungoikoak gugatik egin dituan  
gauza miragarriak ikusiaz gure fedea  
sendotu dedin.*


*Mandatari baten bitartez (Epistolan edo  
beste irakurgai batean) eta bere Seme  
Jesukristo gure Salbatzailearen bitartez  
(Ebanjelioan) Jaungoiko berberaren  
Itza entzungo degu.*

*Gero, Jaungoikoaren Itza ori azaldu ta  
gaurkotu egingo digu Eleizeak (Itzal-  
dia).*

*Eta, azkenez, gure federatua aitortuko  
degu guziok Kredoa esanaz.*

### EPISTOLA EDO IRAKURGAI ONDOREN

- A. Jaungoikoaren itza.
- E. Goratzen zaitugu, Jauna.



## EBANJELIO ASIERAN

(Zutik)

- A. Jauna zuekin.
- E. Eta zure espirituarekin.**
- A. Berri Onaren asiera edo zatia.  
San ... 'en liburutik.
- E. Aintza Zuri, Jauna.**

## EBANJELIO ONDOREN

- A. Jaungoikoaren itza.
- E. Goratzen zaitugu, Jauna.**
- A. (ITZALDIA.)


(Zutik)

## KREDOA

(Eseri)

- G. Siñisten det Jaungoiko bakarra,**  
Aita guzialduna, zeru-lurren Egillea,  
agiri diran eta ez diran guziak  
egin zituana.  
**Siñisten det Jaun bakar,**  
Jesukristo,  
Jaungoikoaren Seme bakar,  
gizaldi guziak baño len  
Aitarengandik jaioa.

**Jaungoikoagandik Jaungoiko,**  
Argitik Argi,  
egizko Jaungoikoagandik egizko  
Jaungoiko,  
egiña ez, sortua baizik,  
Aitarekin izate bereko,  
gauza guziak egin zituana;  
gu gizonangatik eta gu  
salbatzearen  
zerutik jetxi zana,  
eta Espiritu Santuaren egitez  
Birjiña Mariagandik aragia artu,  
eta gizon egin zana;  
eta Pontzio Pilatoren egunetan  
gugatik gurutzean iltzatua;  
nekaldua ta obiratua izan zana,  
eta Idazti Deunak esan bezela  
irugarren egunean piztu zana,  
eta zeruetara igo eta Aitaren  
eskualdetik  
eseririk dagona;  
eta biziak eta illak epaitzera berriro  
aintzaz etorriko dana,  
eta aren erregetzak ez du  
azkenik izango.  
**Siñisten det Espiritu Santua,**  
Jaun eta bizi emallea,  
Aita eta Semeagandik datorrena,  
Aitarekin eta Semearekin batean  
gurtza eta gorapen berbera  
artzen duana  
eta igarleen aoz itzegin zuana.  
**Eta Eliza bakar,**  
santu, katoliku ta apostolutarra.  
Aitortzen det Bataio bakarra  
pekatuen barkamenerako.



## ERRIAREN ESKARIAK

*Mundu zabala dakargu gogora, orain. Eta eskari batzuek egiten deutsaguz gure Jaun eta Jaungoikoari, gizon guztien alde.*

*«Egin otoitz alkaren alde.» (St 5, 16.) «Gizon guztien alde eskari, otoitz, erreagu ta esker-emoteak egin daitezala eskatzen deutsut... On eta atsegigarria da au Jaungoiko gure Salbatzailearen aurrean: gizon guztiak zeruratu ta egiazen ezaguerara etorri daitezala nai dauta.» (1 Tim 2, 1-4.)*

*Egin daigun, ba, otoitz, Jaungoikoak guri erakutzi deuskun salbaziño-bidea gizon guztiak ezautu dagien eta guk artu doguzan doiak be artu dagiezan.*

**Itxaroten dogu illen biztuera  
ta gero betiko bizitza. Amen.**

- A. Jauna zuekaz.
- E. Eta zure espirituagaz.**
- A. Egin daigun otoitz.

## Entzun, Jauna, eskatzen deutsugu :

- Eleizearen alde,
  - agintarien alde,
  - naigabetuta bizi diranen alde,
  - ildako guztien alde,
  - emen batu garan guztion alde...
- (Jesarri)

# EUKARISTIAREN LITURJIA

«Eta prestatu egin zuten Pazkoa.» (Lk 22, 13.)


## PRESTAMENAK

Jaungoiko-Itzaren Liturjia ondoren, Eukaristiaren Liturjia dator. Eukaristia egitera ta artzera goaz.

Jaungoikoaren Itza egintza biurtuko da. Esan ta izan. Eta gure aurrean izango degu (sakramento modura) azken Aparia, Gurutzeko Oparia, Alkartasun (Itun) Berri ta Bektikoa, gure-gure egiteko.

Orregatik, lendabizi, Kristoren Gorputz eta Odol biurtuko diran ogia ta ardoa artzen ditu, Meza-emäilleak au da, oparigafak prestatzenten ditu.





- A. Egin otoitz, anaiok,  
neure ta zuen opari au,  
Jaungoiko Aita alguztidunari  
gogoko izan dakion.
- E. Artu bei Jaunak zure eskuetatik  
opari au, bere izenaren aintza ta  
goramenerako, geure arimen  
eta bere Eleiza santu osoaren  
onerako**
- (Zutundu)

### OTOITZA

*Opari-prestaerak eginda gero, otoitz bat egiten deutso abadeak Jaungoiko-ari, atondu doguzan oparigaiak aintzat eta ontzat artu dagizan.*

- A. (Egunari dagokion otoitza)...
- E. Amen.**

## EUKARISTI-OTOITZ NAGUSIAREN ASIERA

«*Edozerteran ari zeratela, itzez naiz egitez, egin guzia Jesukristoren izenean, onen bitartez Jaungoiko Aitari eskerrak emanez.*» (Kol 3, 17.)

(Zutik)

A. Jauna zuekin.

**E. Eta zure espirituarekin.**

A. Gora biotzak.

**E. Jaunagan dauzkagu.**

A. Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari.

**E. Egoki ta bidezko da.**

## IRUTASUNARENA

- A. Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, guk Zuri, Aita on, eta Jaungoiko Guztialdun eta Betikoa zera orri, eskerrak ematea nun-nai ta beti. Zure Seme Bakarrarekin eta Espiritu Santuarekin Jaungoiko Bakar zera, Jaun Bakar; nor-izan bakarra dezutelako ezbaña, irutan zer-izan bakarra dezutelako. Zerorrek erakutsirik, Zure aintzaz sinisten deguna bera, ezeren alderikan gabe, aitortzen diegu, bai Zure Semeari, bai Espiritu Santuari. Onela, Betiko Jaungoikoa aitortzean, nor-izanean bereiz, zer-izanean bakar, aundi-izanean berdin adoratzen zaituztegu. Au goresten dute Aingeruak eta Goi-Aingeruak, eta Zeruko talde guztiak, ago-batez, eten-gabe ots-egiñaz:

## BETIKOA

A. Egoki ta bidezko da, bai, zuzen eta osasungarri, beti ta edonon, eskerrak emotea, Jauna, guk Zuri, Aita on, Jaungoiko alguztidun betiko orri, Kristo gure Jaunaren bitartez. Beronen bitartez, Jaun andi ori, goratzen zaitue Aingeruak eta Goi-aingeruak eta zerutar guztia, alkar arturik pozez. Guri bere itxi egiguzu gure kantuok areinakaz bat egiten, apalik dirautzugula:

**G. Santu, Santu, Santua,  
Izadiaren Jaungoiko Jauna.  
Zeru-lurrak zure ederrak  
beterik daukaz.  
Hosanna zeru-goieta !  
Ondo etorria Jaunaren  
izenean datorrena.  
Hosanna zeru-goieta !**




## MEZAREN SAGARA

«Begiak zerura jaso ta esan zuan Jesus'ek:  
Nere burua eskintzen dut nik oiengatik;  
eurak ere egitan santutuak izan ditezen.»  
(Jn 17, 1 eta 19.)

*Mezaren biotzean gaude. Eta zero ta lurreko  
Elizarekin bat eginda, Eukaristia egitera goaz,  
Kristoren Gurutzeo Oparia eskintzera, Al-  
kartasun (Itun) Berri ta betikoa berritzatzera.  
Ixil-ixillik eta erne egon, bada, «sinismen-  
misterio» ontan. Eta esan ta egin, gogoz eta  
biotzez, Meza-emailleak esaten eta egiten  
duana, Kristoren bitartez gure Opari au Jaun-  
goiko guzialdunari atsegín dakion.*

### OPARIGAIEN ESKEINTZA

*Lendabizi, Eliza osoaren alde otoi egiten  
degu. Eta, gero, zeruko santuai ta, batez ere,  
Andra Maria'ri laguntza eskatu ondoren,  
oparigaiak ontzat artu ditzala eskatzen dio-  
gu Jaungoikoari.*



A. Zuri, beraz, Aita guztiz ona, Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitarbez, apalik eskatzen dautzugu onartu  $\ddagger$  ta bedeinkatua daizuzala eskeintza garbiok.

Zure Eleiza Santu Katolikuaren alde eskeintzen deutzuguz, lenengo: Emioozu mundu zabalean bakea ta batasuna; eta zaindu egizu bide zuzenean, Zure Serbitzari I. gure Aita Santuarekin; I. gure Artzaiñarekin; eta Apostoluen siñiste katolikua osorik zaintzen daben beste guztiekin.

Gogoan izan, Jauna, guk gogoan ditugun zure seme-alabak I. ta I... Eta emen diran guztiak; ezagutzen dozu onen siñiste zintzoa. Danon izenean eskeintzen deutzugu gorespenezko opari au, eta eurak bere eskeintzen deutzue, bai eurentzat, bai euren artekoentzat, pekatuen parkamenerako, eta itxaro daben gorputz-arimen osasunerako; ortarako egiten deutzuez euren otoitzak Zuri, betiko Jaungoiko bizi ta egiazko orri.

Guztiok bat eginiak, aitatu ta goratzent ditugu, lenengo, Andra Maria, Ama beti birjiña, gure Jaun ta Jaungoiko Jesukristo'ren Ama, eta onen senar Jose santua; baita zure Apostolu ta Martiri doatsu, Pedro ta Paulo, Andres, Yakobe, Juan, Tomas, Yakobe, Felipe, Bartolome, Mateo, Simon eta Tadeo; Lino,



eta Tadeo; Lino, Kleto, Klemente, Sixto, Kornelio, Zipriano, Lorentzo, Krisogono, Juan ta Paulo, Kosme ta Damian, eta Zure Santu guziak. Auen mereziz ta otoiinez emaiguzu, nun-nai ta beti, Zure indar ta laguntza. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Ona emen, Jauna, Zure serbitzarien eta Zure erri guziaren Eskeintza. On-artzazu, beraz; eratu Zure pakean gure egunak; betiko eriotzetik atera, eta artu gaitzazu Zure aukeratuen artean. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.


Bedeinka, Jauna, eskeintza au; eta Zuretzat on ta atseginingarri egizu, eta guretzat izan dedilla Zure Seme maite Jesukristo gure Jaunaren Gorputz eta Odol.

### SAGARATZEA

*«Egin au nere oroipenaz.» (1 Kor 11, 24.) Jesukristok esana egiñaz, Meza-emailleak ogia ta ardoa sagaratu egiten ditu eta Jesukristoren Gorputz eta Odol biurtzen dira.*

- A. Berak, il-bezperan, Bere esku santutan, ogia artu, eta begiak zerura jasorik, Bere Aita Jaungoiko Guzialdun orrengana, Zuri eskerrak emanaz, bedeinatku zuan, zatitu ta Bere ikasleai eman, esanaz: Artzazute ta jan guztiok ontatik:


### AU, NERE GORPUTZA DA-TA.




Apal-ondoan, berdin, Bere esku santuetañ kaliza baliotsu au arturik, berriz ere Zuri eskerrak emanaz, bedeinkatu zuan eta Bere ikasleai eman, esanaz: Artzazute ta edan guztioek ontatik:

**AU, NERE ODOLAREN KALIZA DA-TA,  
ITUN BERRI TA BETIKOAREN  
ODOLA;  
—SINISMEN-MISTERIOA—  
ZUENTZAT ETA GUZTIENTZAT  
PEKATUAK BARKATZEKO  
IXURIKO DANA.**

Au egiten dezuten aldi bakotzean, egin Nere oroigarri.





## OPARI-ESKEINTZA

Jesukristo gure Jaunaren Pasioa, illen artetik Piztea ta Zeruratzea gogoratuaz, Opari-eskeintza egiten degu. Eta begi on eta argiz artu dezala ta zeruko ondasun ta graziaz bete gaitzala eskatzen diogu Jaungoikoari.

A. Orregatik, Jauna, gogoratuaz guk, Zure serbitzarioi eta Zure erri santu onek, Zure Seme Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi doatsua, eta illenartetik Piztea, eta Zeruratze miragarria; eskeintzen dizugu, Jaungoiko Aundi orri, Zuk emandako doaietatik, Opari garbi, Opari santu, Opari errugabea, Betiko Bi ziaren Ogi santua, eta Betiko Zorionaren Kaliza.

Artu itzazu, begi on ta argiz. Ala artu zentuan, Abel Zure serbitzari zintzoaren doaiak, eta Abraham gure Aitaren oparia, eta Melkitsedek Zure Apaiz Nagusiaren eskeintza santu ta errugabea.

Apalki eskatzen dizugu, Jaungoiko Guztia-duna, Zure Aingeru santuak eraman ditzala, Zeruko Aldarera, Jaun Aundi orren aurrera; Aldare ontatik Zure Semearen Gorputz-Odol santuak artzen ditugun guziok, Zeruko ondasun ta graziaz bete gaitezen. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Gogoan izan, Jauna, Sinistearen ezaugariarekin joan, eta orain pakezko loan diran Zure seme-alaba I. ta I...

Auei eta Kristoren'gan atseden duten guztiai, eman, Jauna, zeruan poza, argia ta pakea. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Guri ere, Zure biotz onean sinistea degun pekatarioi, iguzu leku, Zure Apostolu ta Martiri santuen artean: Juan, Esteban, Matias, Barnaba, Iñazio, Alejandro, Martzelino, Pedro, Felizitas, Perpetua, Agada, Lutzia, Iñes, Zezilia, Anastasia, eta Zure Santu guzien artean; iguzu, ez guk mereziari begira-

tuaz, Zu barkatzalle zeralako baizik. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Beronen bitartez, Jauna, beti gauza on guztiek egiten dituzu, santutzen, bizierazten, bedeinkatzen eta guri ematen.

## GORESPENA

*Jesukristoren bitartez, Espiritu Santuagan, Aita Jaungoikoa goratuaz, amaitzen degu Mezaren Sagara.*


*Dena egiten degu Jesukristoren bitartez. Izan ere «Jesukristo gizona da Jaungoikoaren eta gizonen bitarteko bakarra.» (1 Tim 2, 5.)*

*«Jaungoikoaren agintzari guziak Beragan «Bai» dira (Berarekin bete dira) eta Beragatik diogu Amen, Jaungoikoaren gorespenerako.» (2 Kor 1, 20.)*

*Biotz eta ao batez esan dezagun, bada, Amen, auxe dalako Meza guzikorik Amen'ik aundieta.*

- A. Onen bitartez, Onekin eta Onengan, Zuri, Aita Jaungoiko guzialdun orri; Espiritu Santuarekin batean, ospe ta aintza guzia, gizaldi ta gizaldi guzietan.

**E. Amen.**



## EUKARISTI-ARTZEA

Aitagurea

(Zutik)

A. Egigun otoitz.  
Salbatzalleak agindu  
ta erakutsi bezela,  
beldur gabe esan dezagun:

G. Aita gurea,  
zeruetan zaudena,  
santifikadua izan bedi  
zure izena,  
betor gugana zure erreinua,  
egin bedi zure borondatea  
zeruan bezela lurrean ere.  
Emaiguzu gaur  
gure eguneroko ogia,  
barka zazkiguzu gure zorrak,  
guk geren zordunai  
barkatzen diegun bezela,  
eta ez gaitzazu utzi  
tentazioan erortzen,  
baizikan libra gaitzazu gaitzetik.



## GEIGARRIA


A. Zaitu gaitzazu, Jauna, lengo, oraingo eta geroko gaitz guzietatik, eta Jaungoikoaren Ama, Maria beti-Birjiñ, doatsu ta zoriondunaren, zure Apostolu Pedro ta Pablo, eta Andres, eta Santu guzien bitartez, emaiguzu, arren, pakea gure egunetan, zure errukiari esker, pekatutrik eta iñolako okerrik gabe bizi gaitezen.

Ala eskatzen dizugu zure Seme Jesukristo Jaunagaitik, Zurekin ta Espiritu Santuarekin Jaungoiko ta Errege bizi bait-da gizaldi ta gizaldietan.

**E. Amen.**

## OGI-ZATITZEA

A. Jaunaren pakea beti zuekin.  
**E. Eta zure espirituarekin.**



## «JAUNGOIKOAREN BILDOTSA»

### G. Munduko pekatua kentzen dezun

**Jaungoikoaren Bildotsa,  
erruki zakizkigu**

(Ildakoen mezetan: emaiezu atsedena.)

### Munduko pekatua kentzen dezun

**Jaungoikoaren Bildotsa,  
erruki zakizkigu.**

(Ildakoen mezetan: emaiezu  
atsedena.)

### Munduko pekatua kentzen dezun

**Jaungoikoaren Bildotsa,  
emaiguzu pakea**

(Ildakoen mezetan: emaiezu  
betiko atsedena.)

*(Belauniko)*

## JAUNARTU AURREKO OTOITZAK

- A. Zure apostolua «nere pakea uzten dizuet, nere pakea ematen dizuet» esan zenien Jesukristo Jauna: Ez begiratu nere pekatuai, zure Elizaren fedeari baizik; Eliza au, zure gogoa danez, paketa bat egin zazu, azkengabeko egunean bizi ta agintzen dezun Jaungoiko orrek. Amen.

- A. Jesukristo Jauna, Jaungoiko biziaren Semea; Aitaren gogoz eta Espiritu Santuaren laguntzaz, zure eriotzarekin mundua bizarazi dezuna: Zure Gorputz eta Odol santuen bitartez, atera nazazu nere pekatua gaitz guzietatik. Eta egizu zure aginduia lotuta bizi nadilla beti eta ez dezadala Zugandik iñioz ere alde egin, gizaldi ta gizaldietan Aita Jaungoikoarekin eta Espiritu Santuarekin batean bizi zeran ta agintzen dezun Jaungoiko orrek. Amen.

- A. Jesukristo Jauna: Nik merezi eazarren, artu nai dedan zure Gorputza ez dedilla izan nere kalterako ta ondamendirako; zure errutioz, nere gorputza eta arima zaintzeko ta sendatzeko baizik, gizaldien gizaldietan Aita Jaungoikoarekin eta Espiritu Santuarekin batean bizi zeran eta agintzen dezun Jaungoiko orrek. Amen.

## JAUNARTZEA

*Mezan guziok Jauna artzea  
guziok guziz parte artzea.*

«Gizasemearen aragia jaten eta bere odola edaten ez baldin badezute ez dezute izango bizitzarik zeurongan. Nere aragia jaten eta nere odola edaten duanak, ordea, betiko bizitza dauka eta piztu egingo det nik olako ori azkeneko egunean. Nere aragia, izan ere, benekato janari da eta nere odola, benetako edari. Nere aragia jaten eta nere odola edaten duana nigan izango da eta ni beragan.» (Jn 6, 53-56.)

- A. Au da munduko pekatua kentzen duan Jaungoikoaren Bildotsa.


- G. Jauna, ni ez naiz nor Zu nere etxean sartzeko, baña esazu itz bat ta sendatuko naiz.**

*(Iru bider).*

## APAIZAREN JAUNARTZEA:

- A. Jesukristo gure Jaunaren Gorputz onek gorde nazala betiko bizitzarako. Amen.

- A. Jesukristo gure Jaunaren Odol onek gorde nazala betiko bizitzarako. Amen.



## ERRIAREN JAUNARTZEA:

A. Kristoren Gorputza.

E. Amen.

## EDONTZI TA ESKU-GARBITZEA


*Gure Jauna eman ondoren, kaliza ta eskuak garbitzen ditu apaizak, otoitz auek esanaz bien bitartean:*

- A. Aoz artu degun au, biotz garbiz ar dezagula, Jauna; eta gaurko doai au, betiko osasun biurtu dakigula.
- A. Jan-edan ditudan zure Gorputz ta Odola, itsatsi bitez nere erraietan, Jauna; eta Sakramento garbi ta santu onek indartu nauan ezkerro, ez bedi neregan pekatu-kutsurik gelditu, gizaldi ta gizaldietan bizi zeran ta agintzen dezun orrek. Amen.

## ESKERRAK EMOTEA

*«Ez naiz bizi ni; Kristo bizi da neregan.» (Gal 2, 20.) «Eta zer emango diot Jaunari eman dizkitan guzien ordañez?» (115'gn. salmoa.)*

Eskerrak emango  
ditizut billera aundian,  
goretsiko zaitut  
erri zabalean (34'gn. salmoa).



**Kristoren arima, santutu nazazu;  
Kristoren Gorputza, salba nazazu;  
Kristoren Odola, ase nazazu;  
Kristoren saietzeko ura, garbi nazazu;  
Kristoren Pasioa, indartu nazazu;  
Ene Jesus ona, entzun neri;  
Zure zaurien barruan gorde nazazu;  
Zugandik alde egiten ez neri utzi;  
Etsai gaiztoagandik zaindu nazazu;  
Nere eriotzako orduan deitu nazazu,  
eta Zugana joateko agindu zaidazu,  
Zure Santuekin batean,  
goretsi zaitzadan,  
betikotasun osoan. Amen.**

### AZKEN-OTOITZA

*Orain, azken-otoitza egiten du Meza-emaileak. Eta auxe eskatzen dio Jaungoikoari guzion izenean: Meza Santuan artu ditugun doaiak osasungarri izan dakiguzala bizitza ontarako ta gerokorako.*

(Zutik)


A. Jauna zuekin.

**E. Eta zure espirituarekin.**

A. Egigun otoiitz:

*(Egunari dagokion otoiiza)*

**E. Amen.**



## ONESPENA TA AZKEN AGURRA

*Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean gu bedeinkatu, eta «Zoazte...», esaten digu Meza-amailleak.*

*Zoazte Jaunaren pakean; zuen bitzitza Mezara ekarriaz, Jaunarekin indartu ta berritu baitzerate.*

*Zoazte, bakoitza bere arlora, eta eroan Meza bizitzara, zuen etxean, lanean, jolazean, leku guzietan kristau bezela agertu zaitezten.*

A. Jauna zuekin.

### E. Eta zure espirituarekin.

*(Belauniko)*

A. Onetsi zaitzatela Jaungoiko guzialdunak,  
Aitak eta Semeak eta Espiritu  
Santuak.

### E. Amen.

*(Zutitu)*

*Elezkizunak jarraitzen duanean:*

A. Onetsi dezagun Jauna.

### E. Eskerrak Jaungoikoari.


*Ildakoen mezetan:*

A. Pakean dezatela atseden.

### E. Amen.

A. Zoazte Jaunaren pakean.

### E. Eskerrak Jaungoikoari.



Anai-batzarra bukatu da-ta,  
zoaz pakean fededun!  
Eraman Meza, oin bizitzara,  
bitzizaratu dezazun;  
eta ibill Kristau bezela,  
edonoiz eta edonun;  
«Meza-liburu txiki»'k doitsu:  
Beste baterarte, lagun!

## ORACIONES ANTE EL ALTAR

**En el nombre del Padre  y del Hijo**

**y del Espíritu Santo. Amén.**

S. Me acerqué al altar de Dios.

**F. A Dios, que es nuestra alegría.**

S. Nuestro auxilio es el nombre del Señor.

**F. Que hizo el cielo y la tierra.**

S. Yo pecador...

Después de oír la confesión del Sacerdote, nosotros también, siguiendo su ejemplo, pedimos a Dios perdón por nuestros pecados.

**F. Dios todopoderoso tenga misericordia de ti y, perdonados tus pecados, te lleve a la vida eterna.**

S. Amén.

**F. Yo pecador, me confieso a Dios, Todopoderoso, a la bienaventurada siempre Virgen María, al bienaventurado San Miguel Arcángel, al bienaventurado San Juan Bautista, a los Santos Apóstoles Pedro y Pablo, a todos los Santos, y a Vos, Padre, que peque gravevemente con el pensamiento palabra y obra, por mi culpa, por mi culpa, por mi grandísima culpa; por tanto ruego a la bienaventurada siempre Virgen María, al bienaventurado San Miguel Arcángel, al bienaventurado San Juan Bautista, a los Santos Apóstoles Pedro y Pablo, a todos los Santos, y a Vos, Padre, que roguéis por mí a Dios nuestro Señor.**

S. Dios Todopoderoso tenga misericordia de vosotros, perdona vuestros pecados y os lleve a la vida eterna.

**F. Amén.**

S. El Señor Todopoderoso, rico en misericordia, nos conceda el perdón de nuestros pecados.

**F. Amén.**

- S. Miranos, oh Dios, y nos darás la vida.
- F. Y tu pueblo se alegrará en Ti.**
- S. Muéstranos, Señor, tu misericordia.
- F. Y danos tu salvación.**
- S. Señor, escucha nuestra oración.
- F. Y llegue a Ti nuestro clamor.**
- S. El Señor esté con vosotros.
- F. Y con tu espíritu.**
- S. Oremos.

## LETANIA

S. Señor, ten piedad.

**F. Señor, ten piedad.**

S. Señor, ten piedad.

**F. Cristo, ten piedad.**

S. Cristo, ten piedad.

**F. Cristo, ten piedad.**

S. Señor, ten piedad.

**F. Señor, ten piedad.**

S. Señor, ten piedad.

**F. Gloria a Dios en el cielo, y en la tierra paz a los hombres que ama el Señor.**

Por tu inmensa gloria te alabamos, te bendecimos, te adoramos, te glorificamos, te damos gracias,

Señor Dios, Rey celestial,

Dios Padre Todopoderoso

Señor, Hijo único, Jesucristo,

Señor Dios, Cordero de Dios,

Hijo del Padre:

tú que quitas el pecado

del mundo,

ten piedad de nosotros;

tú que quitas el pecado

del mundo,

atiende nuestra súplica;

tú que estás sentado a la

derecha del Padre, ten piedad

de nosotros: porque sólo tú

eres Santo, sólo tú, Señor,

sólo tú Altísimo Jesucristo,

con el Espíritu Santo, en la

gloria de Dios Padre. Amén.

## REZAMOS TODOS UNIDOS

S. El Señor esté con vosotros.  
F. Y con tu espíritu.

## OIMOS LA PALABRA DE DIOS

*Sentados, escuchemos la primera lectura, tomada de las cartas de los Apóstoles o del Antiguo Testamento. Palabra de Dios.*

F. Te alabamos, Señor.  
S. El Señor esté con vosotros.  
F. Y con tu espíritu.  
LECTURA DEL SANTO EVANGELIO, SEGUN MATEO, MARCOS, LUCAS, JUAN

F. Gloria a Ti, Señor.  
SE LEE EL EVANGELIO DEL DIA  
Palabra de Dios.

F. Te alabamos, Señor.  
en un solo Dios Padre Todopoderoso

Creador de cielo y tierra,  
de todo lo visible y lo invisible.

en un solo Señor, Jesucristo,

Hijo único de Dios,  
nacido del Padre  
antes de todos los siglos:

Dios de Dios,  
Luz de Luz,  
Dios verdadero de Dios verdadero,  
engendrado, no creado,  
de la misma naturaleza  
que el Padre,  
por quien todo fue hecho;  
que por nosotros los hombres  
y por nuestra salvación  
bajó del cielo,  
y por obra del Espíritu Santo

se encarnó de María, la Virgen,  
y se hizo hombre;  
y por nuestra causa fue crucificado  
en tiempos de Poncio Pilato:  
padeció y fue sepultado,  
y resucitó al tercer día  
según las Escrituras,  
y subió al cielo,  
y está sentado a la derecha  
del Padre;  
y de nuevo vendrá con gloria  
para juzgar a vivos y a muertos,  
y su reino no tendrá fin.

Creo  
Creemos | En el Espíritu Santo,  
señor y dador de vida,  
que procede del Padre y del Hijo,  
que con el Padre y el Hijo  
recibe una misma adoración  
y gloria,  
y que habló por los profetas;  
y en la Iglesia,  
que es una, santa, católica  
y apostólica

Reconozco  
Reconocemos | un solo Bautismo  
para el perdón de los pecados.  
la resurrección de los muertos y la  
Espero  
Esperamos | vida del mundo futuro. Amen.

S. El Señor esté con vosotros.  
F. Y con tu espíritu.  
S. OREMOS.

## PRECES DE LA ASAMBLEA

Pedimos por todos,  
por la Iglesia de Dios,  
por los gobernantes de las naciones,  
por los necesitados,  
por los difuntos,  
por nuestras necesidades,  
por las de todo el mundo.

El pueblo contesta:

— Te lo pedimos, Señor  
o  
— Te rogamos, óyenos.

- S. Orad, hermanos,  
para que este sacrificio, mío y vuestro,  
sea agradable a Dios  
Padre todopoderoso.
- F. El Señor reciba de tus manos  
este Sacrificio, para alabanza y  
gloria de su nombre, para  
nuestro bien y el de toda su  
santa Iglesia.**
- S. Por todos los siglos de los siglos.  
**F. Amén.**

## Comienzo de la gran oración eucarística

(de pie)

- S. El Señor esté con vosotros.  
**F. Y con tu espíritu.**  
S. Levantemos el corazón.  
**F. Lo tenemos levantado hacia el Señor.**  
S. Demos gracias al Señor, nuestro Dios.  
**F. Es justo y necesario.**

(de pie)

**Santo, Santo, Santo es el Señor,  
Dios del Universo.  
Llenos están el cielo y la tierra  
de tu gloria.  
¡Hosanna en el cielo!  
Bendito el que viene en nombre  
del Señor  
¡Hosanna en el cielo!**

## CANON DE LA MISA

### PETICIONES

- S. A ti, pues, Padre misericordioso, te pedimos humildemente por Jesucristo, tu Hijo, nuestro Señor, que aceptes y bendigas estos  $\text{H}$  dones, este sacrificio santo y puro que te ofrecemos, ante todo por tu Iglesia santa y católica: para que le concedas la paz, la protejas, la congregues en la unidad y la gobiernes en el mundo entero, con tu servidor el Papa N., con nuestro Obispo N., y todos aquellos que, fieles a la verdad, promueven la fe católica y apostólica.
- S. Acuérdate, Señor, de tus hijos N. y N., y de todos los aquí reunidos, cuya fe y entrega bien conoces: por ellos y todos los tuyos, por el perdón de sus pecados y la salvación que esperan, te ofrecemos, y ellos mismos te ofrecen, este sacrificio de alabanza, a ti, eterno Dios, vivo y verdadero.
- S. Reunidos en comunión, veneramos la memoria, ante todo, de la gloriosa siempre Virgen María, Madre de Jesucristo, nuestro Dios y Señor, la de su esposo, San José, la de los santos apóstoles y mártires Pedro y Pablo, Andrés, Santiago y Juan, Tomás, Santiago, Felipe, Bartolomé, Mateo, Simón y Tadeo; Lino, Cleto, Clemente, Sixto, Cornelio, Cipriano, Lorenzo, Crisólogo, Juan y Pablo, Cosme y Damían, y la de todos los santos; por sus méritos y oraciones concédenos en todo tu protección. Por Cristo Nuestro Señor. Amén.
- S. Acepta, Señor, en tu bondad, esta ofrenda de tus sier-  
vos y de toda tu familia santa; ordena en tu paz nuestros  
días, libranos de la condenación eterna y cuéntanos  
entre tus elegidos. Por Cristo Nuestro Señor. Amén.
- S. Bendice y acepta, oh Padre, esta ofrenda haciéndola  
espiritual, para que sea Cuerpo y Sangre de tu Hijo  
amado, Jesucristo, nuestro Señor. El cual, la vispera  
de su Pasión, tomó pan en sus santas y venerables ma-  
nos; y, elevando los ojos al cielo, hacia ti, Dios, Padre  
suyo todopoderoso, dándote gracias y bendiciendo, lo  
partió, lo dio a sus discípulos y dijo:
- TOMAD Y COMED TODOS DE EL  
PORQUE ESTO ES MI CUERPO.**
- S. Del mismo modo, acabada la cena, tomó este cáliz glo-

rioso en sus santas y venerables manos; dándote gracias y bendiciendo, lo dio a sus discípulos y dijo:

**TOMAD Y BEBED TODOS DE EL  
PORQUE ESTE ES EL CALIZ DE MI SANGRE,  
SANGRE DE LA ALIANZA NUEVA Y ETERNA,  
—SACRAMENTO DE LA FE—  
QUE SERÁ DERRAMADA POR VOSOTROS  
Y POR TODOS LOS HOMBRES  
PARA EL PERDON DE LOS PECADOS.**

Cuantas veces hagáis esto, haréis el memorial mío.

- S. Por eso, Señor, nosotros, tus siervos, y todo tu pueblo santo, al celebrar este memorial de la Pasión gloriosa de Jesucristo, tu Hijo, nuestro Señor, de su santa resurrección del lugar de los muertos y de su admirable ascensión a los cielos, te ofrecemos, Dios de gloria y majestad, de los mismos bienes que nos has dado, el sacrificio puro, inmaculado y santo: pan de vida eterna y cáliz de eterna salvación.
- S. Dirige tu mirada serena y bondadosa sobre esta ofrenda: acéptala como aceptaste los dones del justo Abel, el sacrificio de Abrahám, nuestro padre en la fe, y la obla-ción pura de tu sumo sacerdote Melquisedec.
- S. Te pedimos humildemente, Dios todopoderoso, que esta ofrenda sea llevada a tu presencia, hasta el altar del cielo, por manos de tu ángel; para que cuantos recibimos el Cuerpo y la Sangre de tu Hijo al participar aquí de este altar, bendecidos con tu gracia, tengamos también parte en la plenitud de tu reino. Por Cristo Nuestro Señor. Amén.
- S. Acuérdate también, Señor, de tus hijos N. y N., que nos han precedido en el signo de la fe y duermen el sueño de la paz. A ellos, Señor, y a cuantos descansan en Cristo, concédeles el lugar del consuelo, de la luz y de la paz. Por Cristo Nuestro Señor. Amén.
- S. Y a nosotros, pecadores, que confiamos en tu infinita misericordia; admítenos en la asamblea de los santos apóstoles y mártires Juan el Bautista, Esteban, Matías y Bernabé, Ignacio y Alejandro, Marcelino y Pedro, Felicidad y Perpetua, Agueda, Lucía, Inés, Cecilia, Anastasia y de todos los santos; y acéptanos en su compañía, no por nuestros méritos, sino conforme a tu bondad. Por Cristo Nuestro Señor.
- S. Por El sigues creando todos los bienes, los santificas, los llenas de vida, los bendices y los repartes entre nosotros.

S. Por Cristo, con El y en El, a ti, Dios Padre omnipotente, en la unidad del Espíritu Santo, todo honor y toda gloria por los siglos de los siglos. Amén.

## COMUNION

### PADRENUESTRO

(de pie)

S. Oremos—  
Fieles a la recomendación  
del Salvador  
y siguiendo su divina enseñanza,  
nos atrevemos a decir:  
**F. Padre nuestro que estás  
en los cielos.  
Santificado sea tu nombre.  
Venga a nosotros tu reino.  
Hágase tu voluntad  
así en la tierra  
como en el cielo.  
El pan nuestro de cada día  
dánoslo hoy,  
y perdónanos nuestras deudas,  
así como nosotros  
perdonamos a  
nuestros deudores.**

**Y no nos dejes caer  
en la tentación.  
Mas libranos del mal.**

### PARA LATINO-AMERICA

**F. Padre nuestro,  
que estás en el cielo.  
Santificado sea tu nombre.**

**Venga tu reino.**  
Hágase tu voluntad  
en la tierra como en el cielo.  
Danos hoy nuestro pan  
de cada día.  
Perdona nuestras ofensas,  
como también nosotros  
perdonamos  
a los que nos ofenden.  
No nos dejes caer en tentación,  
y libranos del mal.  
Amén.

S. Libranos, Señor, de todos los males, pasados, presentes  
y futuros, y por la intercesión de la santa y gloriosa Ma-  
dre de Dios, siempre Virgen María, de tus santos apó-  
stoles Pedro y Pablo, y de Andrés, y de todos los Santos,  
concédenos la paz en nuestros días; para que, ayudados  
por tu misericordia, vivamos siempre libres de pecado y  
protegidos de toda perturbación. Te lo pedimos por  
nuestro Señor, Jesucristo, tu Hijo, que vive y reina con-  
tigo en la unidad del Espíritu Santo, y es Dios, por los  
siglos de los siglos. Amén.

S. La paz del Señor sea siempre con vosotros.

F. **Y con tu espíritu.**

**Cordero de Dios que quitas  
el pecado del mundo,  
ten piedad de nosotros.**

En las misas de difuntos:  
Concédeles el descanso.

**Cordero de Dios que quitas  
el pecado del mundo,  
ten piedad de nosotros.**

Concédeles el descanso.

**Cordero de Dios que quitas  
el pecado del mundo,  
danos la paz.**

Concédeles el descanso eterno.

S. El Cuerpo de Cristo.  
F. **Amén.**

### ACCION DE GRACIAS

S. El Señor esté con vosotros.

F. **Y con tu espíritu,**  
(de pie)

S. El Señor esté con vosotros.

F. **Y con tu espíritu.**  
(de rodillas)

S. La bendición de Dios todopoderoso,  
Padre **X**, Hijo y Espíritu Santo,  
descienda sobre vosotros.

S. Podéis ir en paz.

F. **Demos gracias a Dios.**

### COMUNIÓN

S. Este es el Cordero de Dios que quita el pecado del  
mundo.

F. **Señor, no soy digno de que entres en mi casa,  
pero una palabra tuya bastará para sanarme.**

(Se repite tres veces)